

## LITERATURAREN IRAKASKUNTZA HEGO EUSKAL HERRIKO BATXILERGOAN. EDUKI KONTZEPTUALETATIK GAITASUN KOMUNIKATIBOETARAKO BIDEAN

**Tesiaren egilea:** Idurre Alonso Amezua

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

**Tesi-zuzendaria:** Patxi Juaristi eta Jon Bati Kortazar

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honek aztergai du euskal literaturaren irakaskuntza Batxilergoan. Egileak Hego Euskal Herrian kokatu du ikerketa-eremua, eta askotariko teknika soziologikoen bidez (kualitatibo nahiz kuantitatiboak) sakondu du literaturaren irakaskuntzak gaur egun dituen helburuetan, erabiltzen diren metodologietan eta lantzen diren edukietan.

Tesiaren lehenengo zatian oinarri teorikoa eskaintzen da; hain zuzen ere, literatura ekintza sozial eta komunikatibo gisa ulertzeko beharrezkoak diren giltzarriak ematen dira, eta horrez gain, gaur egun eskolari atxikitzen zaizkion funtzioetan sakontzen da.

Tesi honek defendatzen du Hego Euskal Herriko ikastetxeetan bi irakaskuntza-eredu gainjarri direla: bata, literaturaren irakaskuntza literaturaren beraren historia transmititzeko irakasgai gisa ulertzen duena, eta beraz, testu eta autore kanonizatuetan oinarritzen dena; bestetik, eredu komunikatiboa, literaturaren irakaskuntza baliatu nahi duena ikaslearen literatura- eta komunikazio-gaitasunak garatzeko eta haren irakurtzeko zaletasuna sustatzeko. Bi ereduak gainjarri izanaren ondorioa eredu berri bat da, non ez ikasleek ez irakasleek ez daukaten argi zer eta nola ikasi edo irakatsi behar den, eta, batez ere, zein helburu erdietsi behar diren.

Ondorioz, irakasle eta ikastetxe bakoitzak modu batean lantzen du Euskal Hizkuntza eta Literaturari dagokion irakasgaia, eta ez dago bermatuta literaturaren presentzia ikasgeletan (izan ere, irakaslearen irizpideen arabera da hizkuntzari nahiz literaturari zenbateko tartea eskainiko zaien).

Bestalde, eta ikerketa honek eskaini dituen datuen arabera, ikasgelan lantzen diren edukiak hautatzeko orduan eragin nabarmenena duten faktoreak honakoak dira: literatur generoa, literatur sariketak eta testuliburuak. Ikasturtean zehar irakurtzen diren liburuei dagokienez, berriz, faktore erabakigarriak izan ohi dira literatur generoa eta, irakasle batzuen kasuan, idazlearen kontsagrazioa.

Bukatzeko, tesiaren egileak azpimarratzen du euskal literaturaren irakaskuntzak, gaur egun, ez duela lortzen curriculum-legeetan zehazten diren helburuetako bakar bat ere: lehenik, literaturaren historia irakastea ez dago bermatuta; ikastetxe batzuetan soilik irakasten da, eta narrazio-autoreetara mugatzen da. Literatur lanen irakurketari dagokionez, irakurgaien % 96 narrazio-liburuak dira, eta irakurketa horiek ez dute helburu gisa irakurtzeko zaletasuna sustatzea. Bestalde, curriculu-

mak zehazten duen hirugarren helburua, alegia, gaitasun komunikatiboen garapena, ez da lantzen ez irakurketen bidez ez eta bestelako jardueren bidez ere; jarduerarik gehientsuenak eduki kontzeptualak finkatzera daude bideratuta.

Horregatik guztiagatik, egileak defendatzen du berebiziko garrantzia duela literaturaren irakaskuntzaren gainean hausnartzeak eta irakasgaia bideratzeak parametro komunikatibo, dinamiko, praktikoa eta motibagarriagoetara, horien bidez gara dezan ikasleak literatur testuen ulermena eta, maila apalagoan, sormen-gaitasuna.